

# Nik markatzen dut minutua

**Duela gutxi elkarrizketa batean,** musika talde bateko kideei galdetu zieten ea zer bultzatzen zituen besteen kantak jotzera, eta haiek erantzun: “Eskuarki, atsegin ditugun kantuak hartzen ditugu, eta geure ikuspegi propioa ematen saiatu”. Aldizkari berean, Londresen bizi den diseinatzaile batek dio musika oso garrantzitsua dela bere lanerako: “Musika estilo bakoitza estetika bat da, gogo aldarre bat”.

Gai izango banintz, nire lanaz mintzatzeko aipu eta zatiki segida batek osatutako testu bat idatziko nuke, egia esatearren nire marrazkiak horixe dira-eta, bata bestearen atzean, batzuk beste batzuen alboan.

Behin batean testu labur bat idatzi nuen, eta bertan garatu apartatu sorta bat, nire marrazkiak aurkezteko balio izan zidatenak. Beste artista batzuen gogoetak ere txertatzen nituen; kontua zen nabarmendu nahi nituen zenbait alderdi biltzea, nire lanari zegokionez eta beste pertsona batzuen lanarekin finkatutako loturei dagokionez. Ondare bat biltzea-edo zen, konplizitate mota bat, baita ezagutza mota bat ere.


Gogoan dut Bilboko Guggenheimera egindako bisita batean bazeudela Gerhard Richterren pieza batzuk eta bideo bat, zeinean artistak, komisarioarekin batera, bere atzera begirako erakusketa baten ibilbidea egiten baitzuten, ez naiz gogoratzen non zen; aretoetan sartu eta iruzkinak egiten zituzten lanen inguruan. Haietako batean, Richterrek esaten du garai hartan berak eta berarekin talde batean zebiltzan artistak sinetsita zeudela berek egiten zuten artea oso ona zela,

onena; kontzienteak ziren garai historiko bati lotutako arte oso garrantzitsua izango zela. Aurpegian erdi-irribarre bat marrazten zitzaioela zioen hori, “ausarta eta zintzoa” batera zela jakiteak eragindako irribarre. Hasieran aipatu dudan aldizkari berean, Madrilen bizi den Bilboko arropa diseinatzaile batek, beste pertsona bati erantzuten, hauxe esaten du: “Gauza bat esango dizut, sentimentalkeria edo hippy kutsua dariola uste baduzu ere. Batzuk elkartu bagara geure burua jainkotiar hartzen dugulako da, eta izen jakin batzuk ez zaizkigu interesatzen, irudi bat eman nahi dugulako, eta beharbada guk bakarrik hartzen ditugu jainkotzat geure buruak...”. Gozatu egiten dut erradikaltasunarekin eta gisa horretako adierazpenek ematen duten eskubideak berreskuratzeko gaitasunarekin. Pertsona eszeptikoagoentzat, gainera-tuko dut gauzak ez direla beti hitzez hitz hartu behar, eta behar-beharrezkoa zaigula umorea. Ari-k, *No hay héroes* bere kantuan honako hau esaten du: “Ez da gauza bera nartzisismoa eta nork bere buruan konfiantza izatea”. Astrud-ek esango luke: “Dena kaka bat iruditzen zaigu, zuena izan ezik”, *El dúo estático*ren aipamena eginda. Astrudek agertoki batean kantatzen duenean, behean dituen zaleek koruak egiten dituzte: “Dena kaka bat iruditzen zaigu, zuena izan ezik”; Astrudek entzuleei esaten die hori *El dúo estático* dela-eta, eta entzuleek haiei itzultzen diete.

Eskubideak berreskuratzeko bide zirkunstantzialak. Aipu aurkituak. Informazioak areagotzea. Iturri desberdinetatik elikatzeak aberastasuna ekartzen du.

Artistaren kortsia





Nire lanaren inguruan testu bat idazteko eskatu didate eta gisa hone-tako gogoetak egiten ari naiz, baina, egia esan, egiten dudanaren prozesuaren parte bat dira. Dibertiarazi egiten nau, dibertiarazi egiten nau espero denari ez erantzutea, ezer espero baldin bada; alde hedonistena aldarrikatzea, plazera plazeragatik. Izan ere, ez dakit zer egin.

Idazkera automatikoaren, aurkitutako objektuaren halako izaera bat, "gure entzuleek ez liekete nahasketei beldur izan behar".

Cathy Lomax artista da, Londreseko Transition Gallery zuzentzen du, eta *Arty* fanzinearen editorea da. Harentzat, garrantzitsua da bere lana beste esparru batzuetara zabaltzea; punk mugimenduaren zenbait ideia hartzen ditu, hala nola "zerorrek egizu", eta zalantzan jartzen du birtuosismo tekniko funtsezko tresna denik zerbit egiteko orduan. *Girly-bad girls* testuinguru batean neska gaiztoen irudiak bildumatzan dituzten beste emakumezko artista batzuen lana aurkezten digu; errealitatea edo fikzioa, berdin dio, parte ikonikoena hartzen digu errebultsibo izateko gaitasuna duelako. Emetasuna ukatsetik haratago, hura asaldatzea da kontua. Emakume bilakatzearen normatibotasunari aurre egiteko estrategiak. Artistengan interesa hartzen duzunean, kutsatzen zaituen, ekintzara bultzatzen duen halako espiritu, halako magia bat bilatzen duzu. Ikusleen erantzuna, desira terminoetan.

Uste dut sorkuntza prozesuek ezagutzari irekita egon behar dutela, artistak, gizonezkoa zein emakumezkoa, tarteari utzi behar dizkio ezezagunari bere lan prozesuan.

Queer desira baten irudikapenaren kasuan, kodeak, ikusle batzuentzako irudikapena diren aldetik, aldatu egiten dira. Artistaren eta entzuleen arteko harremanak iruditeria oso bat sortzen du, irudikapen formak eta identifikazioa janztearen, keinuen, begiradaren, gorputzaren inguruan.

Carme Nogueirak ikuslearen testuinguruaz eta paperaz hitz egiten digu, ikuslea zentzu-sortzailea den aldetik, ez lanean, edo gutxienez haren antzezpenean, agente den aldetik. Hark erreferentzia artelanaren espazioan zabaltzeaz hitz egiten du, agertokia zabalduko duen sekuentzia batez, aldi bereko hainbat eta hainbat irudiz. Logika narratiboa desmuntatzeaz ikuspuntu ez horren zentral bat gaineratzeko, edo agian ikuspuntu bat baino gehiago; hartara, ikusleak ere lanaren parte aktiboa izan daitezke.

Badirudi ezin nintekeela neure ahotsaz mintzatu, baina ez da egia, horixe ari naiz egiten; hasieran aipatu dudan moduan, alderdi batzuk bildu nahi ditut, eta haiek nabarmendu nire lanari dagokionez eta beste pertsona batzuenarekin ezartzen diren loturei dagokionez, baina askoz lotura gehiago izango lirakeke, asko jende gehiagorekikoak.

Uste dut sorkuntza prozesuek ezagutzari irekita egon behar dutela, artistak, gizonezkoa zein emakumezkoa, tarreak utzi behar dizkio ezezagunari bere lan prozesuan. Valcárcel Medinarentzat, hizlariak gauza jakina den zerbait jendaurrean esateak (ez berak dakiena, haren ustez hori erabaki akats-gabea izango bailitzateke) ez du ezertarako balio, “alferreko-tasunaren kintaesentzia” da, eta alferrekoa da ez duelako ekarpenik egiten, lortua da xedea, hitzaldia jakitea ez da hura emateko egoera ideala.

Testu bat neukan idatzita; bertan aipatzen nuen betidanik erabili dudala marrazketa berez esperimendazio alorra den aldetik; lan prozesuaz hitz egiten nuen, nola marrazten dudana nire inguruetik abiatuta (askotariko argitalpenak, fanzineak, katalogoak, aldizkariak, CD azalak...), zenbait taktika txertatzeaz, hala nola apropiazioa, aipamena, esperimendazioa edo esanahi aldaketa. Nire lanean beti agertzen den ikuspegi feministaz ere mintzaten nintzen, haren norabidea markatu duten puntu garrantzitsuetako bat izan baita, alegia, marrazketa aukeratzea adierazpide gisa; horrek erraz kontrolatu eta maneiatu nitzakeen formatuekin lan egiten uzten zidan, material ekonomiarekin... Esaten nuen ez dudala inoiz marrazketa hitzez hitzeko moduan erabili nahi izan, egoerak edo argudioak ilustratzeko; medio horren aurrean kokatu izan dut neure burua beti, haren bidez diskurtso bat garatzeko, errealitate jakin batean gertatzen denarekiko borondate urratzailea duen diskurtsoa. Esaten nuen lanetik mesfidantza bat ondorioztatzen dela irudi bakarrekiko irudi absolutu den aldetik, baita narrazio forma linealarekiko ere; lanean bertan ere erreferentzia asko aurki daitezkeela, eta batzuetan horiek izaten direla benetan lanaren gakoa, modu zatikatuan, batzuetan modu periferikoetan, hutsuneei leku eginda, bertan pitzadurak eta galderak zabal daitezzen.

Ba hori, gauza asko nekizkien, eta hitzaldia jakitea ez zitzaidan abiapuntu egokia iruditzen. Ez nuen hizlariarena egin nahi, zeren hark, Valcárcel Medinak dioen moduan, aldi behin esaten du gauza jakina dena edo jada gauza jakina dena. Horra hor nire omenaldiak, arrakasta izan dezatela.■



AZUCENA VIEITES artista da eta *Erreakzioa-Reacción* arte eta feminismo faktoreen inguruko arte, kultura eta aktibismo sorkuntzarako espazio kolektiboko kidea da. Madrilen bizi da.